

PISA 2012

ITEM DIGITAL LIBERATUAK



PROBLEMEN EBAZPENA
MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA
IRAKURTZEKO KONPETENTZIA



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
PROBLEMEN EBAZPENENKO ÍTEMAK FORMATO DIGITALEAN	7
Ítem I ZIRKULAZIOA	9
Ítem II GARBIKETARAKO ROBOTA	13
Ítem III TXARTELAK	17
Ítem IV AIRE KLIMATIZAGAILUA	20
ERRENDIMENDU-MAILETAKO ATAZEN DESKRIBAPENA	23
MATEMATIKAKO ÍTEMAK FORMATO DIGITALEAN	25
Ítem I CD EKOIZPENA	26
Ítem II IZAR PUNTUAK	29
Ítem III GORGUTZ MASA INDIZEA	34
ERRENDIMENDU-MAILETAKO ATAZEN DESKRIBAPENA	38
IRAKURTZEKO KONPETENTZIARAKO ÍTEMAK FORMATO DIGITALEAN	39
Ítem I SERAING	40
Ítem II KIROL ELKARTEA BILATZEN	44
Ítem III HINKUNTZAK IKASTEN	48
ERRENDIMENDU-MAILETAKO ATAZEN DESKRIBAPENA	52

AURKEZPENA

Dokumentu honetan PISA 2012 ebaluazioan (proba pilotuan edo errendimendu proban) erabili ziren formatu digitaleko zenbait item aurkezten dira adibide gisa. Itemak liberaturik daude, hau da, ez dira berriro erabiliko PISA ebaluazioetan.

Item digitalak argitaratzearen helburua profesionaleri hemen ebaluatzen diren kompetentzien garapen maila neurtzeko modua erraztea eta, baita ere, itemak formatu digital berrian nola aurkezten diren jakinaraztea.

Itemak aurkezteko metodo berriak ikasleek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzeko gutxienezko trebetasuna izatea eskatzen du, probetan zehar nabigatzeko oinarrizko zenbait gaitasun behar izango baitituzte, hala nola teklatua eta sagua erabiltzea, klik egitea, zerbait utzi eta pantailan zehar mugitzea, menu nabigarriak eta estekak erabiltzea eta abar.

Item digitaletarako sarrera den dokumentu honen helburua ikasleek formatu digital berriarekin jardutea da eta, baita ere, ordenagailuen oinarrizko erabilera ez menperatzeak emaitzetan eraginik izan ez dezan.

2015. urtetik aurrera PISA ebaluazio guztiak formatu digitalean bakarrik gauzatuko dira.

Hemen aurkezten diren item guztiak honako helbide elektronikoa honetan aurki daitezke:

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=toMaths>

PISA: examples of computer-based items

Signed in as public | [Login](#)

Digital Reading 2009 Digital Reading 2012 **Mathematics** Problem-Solving

Computer-based Mathematics Units

Click on the magnifying glass icon to view the unit.
Click on the document icon to download the unit information

Locale	CM010 Graphs	CM012 Fencing	CM013 Car cost calculator	CM015 CD production	CM020 Star points	CM030 Photos	CM038 Body mass index
Portugal Portugese							
Republic of Korea							
Singapore English							
Slovenia Slovenian							
Spain Basque			N/A				N/A
Sweden English			N/A				N/A
United Arab Emirates Arabic							
United Arab Emirates English							
United States English							

Aztertzen diren itemetara eta beste batzuetara sartzeko, obaloaren barruan dauden konpetentzien artean bat aukeratu behar da: Irakurtzeko konpetentzia (Digital Reading 2012), Matematikarako konpetentzia (Mathematics) eta Problemen ebazpena (Problem-Solving). Behin konpetentzia aukeratuz gero, eta itemaren euskarazko bertsiora sartzeko nahikoa da itemaren gainean klik egitea (laukizuzenaren barnean daudenak). Luparen ikurra duten itemetara bakarrik sar daiteke (N/A ikurra dutenak ez daude eskuragarri hizkuntza horretan). Dokumentu honen euskarazko bertsioan euskarazko itemetara sartzeko barra (lauki urdin batean sartuta) beherantz arrastatu behar duzu.

Dokumentu honetan, item bakoitzaren aurkezpenaren hasieran itemaren helbidea agertzen da, zuzen sartu ahal izateko.

Ebaluatutako hiru konpetentzietako zenbait item azaltzen dira. Item bakoitzean estimulu-pantailaren irudia, galderaren helburuaren deskribapen laburra eta zuzentzeko irizpideak azaltzen dira. Ahal izan den guztietan, itemeko galdera bakoitzaren ezaugarriak ere aurkeztu dira.

Itemetako galdera bakoitzari emandako erantzun zuzenen ehunekoak –Euskadikoa eta ELGAkoa– ELGAren datu-basean oinarriturik kalkulatu dira, 2014ko martxoaren 31ko datuekin. Erantzun zuzenen ehunekoak berdín kalkulatu dira bi kasuetan, eta, beraz, galdera batzuetan ELGAko datuak eta beste argitalpen batzuetakoak ez dira berdín-berdínak. Hala ere, onargarriak dira Euskadiko datuekin konparazioak egiteko.

PROBLEMEN EBAZPENeko ITEMak FORMATU DIGITALEAN

Jarraian *Problemen ebazpena* kompetentziako formatu digitaleko item batzuk aurkezten dira. Item liberatuak dira, etorkizuneko PISA ebaluazioetan ez baitira berriro erabiliko. Guztiak erabili ziren PISA 2012 ebaluazioan (proba pilotuan edo errendimendu proban).

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=toMaths>

Problem-Solving Units

Click on the magnifying glass icon to view the unit.
Click on the document icon to download the unit information

Locale	CP002 Robot Cleaner	CP007 Traffic	CP013 Birthday Party	CP025 Climate Control	CP038 Tickets	CP043 MP3 PLAYER
Hong Kong - China English			N/A			N/A
Ireland English						
Ireland Irish			N/A			N/A
Italy Italian						
Macao - China English						
Poland Polish						
Portugal Portugese						
Republic of Korea						
Singapore English						
Slovenia Slovenian						
Spain Basque			N/A			N/A
Sweden English			N/A			N/A
United Arab Emirates Arabic						
United Arab Emirates English						
United States English						

Problemen ebazpeneko euskarazko item guztietara sartzeko, *Problem-Solving* gainean klik egin; ondoren, laukizuzen urdinaren barneko problemen artean aukera ezazu ebatzi nahi duzuna.

Helburua PISA ebaluazioak ikasleen errendimendua *Problemen ebazpeneko* errendimendu-maila bakoitzean nola ebaluatzen duen ulergarriagoa egitea da. Garaturik aurkezten diren itemak honako hauek dira:

- ZIRKULAZIOA
- AIRE KLIMATITZAGAILUA
- TXARTELAK
- GARBIKETARAKO ROBOTA

Probako galdera bakoitzak, loturik duen estimuluarekin, ordenagailu-pantaila bakar bat hartzen du, eta ikasleek, hurrengo galderara pasatzeko, pantailaren goiko ezkerreko *Next item* gainean klik egin behar dute.

Erantzun formatu batzuk erabili dira, aukera anitzekoak eta erantzuna eraikita dutenak barne. Dokumentuan galdera bakoitzeko puntuazioa azaltzen da.

Itemetako galdera bakoitzari emandako erantzun zuzenen ehunekoak –Euskadikoa eta ELGAkoa– ELGAren datu-basean oinarriturik kalkulatu dira, 2014ko martxoaren 31ko datuekin. Erantzun zuzenen ehunekoak berdin kalkulatu dira bi kasuetan, eta, beraz, galdera batzuetan ELGAko datuak eta beste argitalpen batzuetakoak ez dira berdin-berdinak. Hala ere, onargarriak dira Euskadiko datuekin konparazioak egiteko.

PROBLEMEN EBAZPENERAKO ITEMAK

ÍTEM I: ZIRKULAZIOA

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=cbaltemPreview&unitVersionId=563>

I. GALDERA

ZIRKULAZIOA

Hiri bateko auzoak batzen dituen errepide-sistemaren mapa da honakoa. Mapak adierazten du, 7:00etan, errepidearen zati bakoitza egiteko behar den denbora, minututan. Gaietan klik eginez, zure ibilbideari errepide bat gehi diezaiokizu. Errepide gaietan klik eginez, errepidea nabarmendu egiten da eta denbora **Denbora, guztira** laukian gehitzen da.

Zure ibilbidetik errepide bat kendu nahi izanez gero, egin klik berriro gaietan. **BERREZARRI** botoia erabil dezakezu ibilbidetik errepide guztiak kentzeko.

Denbora, guztira: minutu

BERREZARRI

1. Galdera: ZIRKULAZIOA CF007Q01

Paul Sarrainen dago eta Esmeraldara joan nahi du. Ahalik eta azkarren iritsi nahi du bertara. Zein da ibilbide horretarako denbora laburrena?

20 minutu
 21 minutu
 24 minutu
 28 minutu

Unitate honetan, errepide-sare bat aurkezten da mapa batean, bidaia bakoitza egiteko behar den denbora azaltzen delarik. Galderak estatikoak dira, informazio guztia hasiera-hasieratik ematen baita; hala ere, proba digitala izatearen abantailak aprobetxatzen dira. Ibilbide batean klik egin eta pantailan nabarmendu daiteke; beheko ezkerrean kalkulagailu bat dago ibilbide ezberdinetako denborak batu ahal izateko. Testuingurua *sozial* eta *ez-teknologiko* bezala sailkatu da.

Lehen galderan (*planifikatu eta gauzatu*) “Sarrainetik” “Esmeraldara” joateko ibilbiderik laburrena kalkulatu behar dute. Erantzunerako lau aukera ematen zaizkie

GALDERAREN EZAUGARRIAK	ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA
MAILA: < I PUNTUAZIOA: 340 PROZESUA: PLANIFIKATU ETA GAUZATU EGOERA: ESTATIKOA TUSTUINGURUA: EZ-TEKNOLOGIKO SOZIALA	EUSKADI: % 87,4 OCDE : % 87,6

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

1 Kodea: 20 minutos.

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.

Erantzun gabe.

2. GALDERA

eu-ES Programme for International Student Assessment 2012

ZIRKULAZIOA

Hiri bateko auzoak batzen dituen errepide-sistemaren mapa da honakoa. Mapak adierazten du, 7:00etan, errepidearen zati bakoitza egiteko behar den denbora, minututan. Gaietan klik eginez, zure ibilbideari errepide bat gehi diezaiokizu. Errepide gainean klik eginda, errepidea nabarmendu egiten da eta denbora **Denbora, guztira** laukian gehitzen da.

Zure ibilbideetik errepide bat kendu nahi izanez gero, egin klik berriro gainean. **BERREZARRI** botoia erabil dezakezu ibilbideetik errepide guztiak kentzeko.

Denbora, guztira: **0** minutu

BERREZARRI

2. Galdera: ZIRKULAZIOA CP007Q02

Maitanek Diamantetik Etxenikera joan nahi du. Bide laburrena egiteko 31 minutu behar dira. Jarri ibilbide hori nabarmenduta.

2. galdera *planifikatzekoa eta gauzatzekoa* da. Mapan urrun dauden bi punturen arteko (“Diamante” eta “Etxenike”) ibilbiderik arinena aurkitu behar dute. Horretarako ibilbiderik arinenetik 31 minutu behar direlako datua erabil dezakete, aukera guztiak sistematikoki aztertu beharrik ez izateko; edo ibilbidea aurkitzeko errepide-sarea modu sistematikoago batean aztertu dezakete.

GALDERAREN EZAUGARRIAK
MAILA: 2
PUNTUAZIOA: 446
PROCESO: PLANIFIKATU ETA GAUZATU
CONTENIDO: ESTATIKOA
CONTEXTUO EZ-TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA
EUSKADI: % 74,5
ELGA: % 75,8

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

1 Kodea: Diamantetik Etxenikera joateko 31 minutuko ibilbidea adierazi du.

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.

Erantzun gabe.

3. GALDERA

ZIRKULAZIOA

Hiri bateko auzoak batzen dituen errepide-sistemaren mapa da honakoa. Mapak adierazten du, 7:00etan, errepidearen zati bakoitza egiteko behar den denbora, minututan. Gaineran klik eginez, zure ibilbideari errepide bat gehi diezaiokezu. Errepide gaineran klik eginda, errepidea nabarmendu egiten da eta denbora **Denbora, guztira** laukian gehitzen da.

Zure ibilbidetik errepide bat kendu nahi izanez gero, egin klik berriro gaineran. **BERREZARRI** botoia erabil dezakezu ibilbidetik errepide guztiak kentzeko.

Denbora, guztira: minutu

3. Galdera: ZIRKULAZIOA CP007Q03

Julen Saren bizi da, Maitane Lizeon eta Daniel Elizan. Mapako auzoren batean egin nahi dute hitzordua, baina inork ez du 15 minutukoa baino ibilbide luzeagorik egin nahi.

Non bildu daitezke?

Hirugarren galderan, goitik beherako menua erabili behar da hiru partaideen denbora-eskakizunak betetzen dituen elkargunea hautatzeko. Gainbegiratzeko eta gogoeta egiteko galdera bezala sailkatu da.

Julen Saren bizi da, Maitane Lizeon eta Daniel Elizan. Mapako auzoren batean egin nahi dute hitzordua, baina inork ez du 15 minutukoa baino ibilbide luzeagorik egin nahi.

Non bildu daitezke?

GALDERAREN EZAUGARRIAK

MAILA: I
PUNTUAZIOA: 408
PROZESUA: GAINBEGIRATU ETA GOGOETA EGIN
EGOERA: ESTATIKOA
TESTUINGURUA: EZ-TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA

EUSKADI: % 84,8
ELGA: % 83,1

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

I Kodea: Sare edo Parkea. Bietatik bat identifikatu du

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
Erantzun gabe.

ÍTEM II: GARIKETARAKO ROBOTA


<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=cbaltemPreview&unitVersionId=562>


GARIKETARAKO ROBOTA

Animazioak robot-xurgagailu berri baten mugimendua erakusten du. Robota proba fasean dago.

Sakatu HASI botoia xurgagailuak objektu mota bakoitzarekin topo egitean zer egiten duen jakiteko.

BERREZARRI botoia erabil dezakezu xurgagailua edozein unetan hasierako posizioan jartzeko.





Unitate honetan animazio batek garbiketarako robot batek gela batean duen jokabidea erakusten du. Robot-xurgagailua aurrerantz mugitzen da oztopo batekin topo egin arte; gero, arau batzuek finkatutako jokabidea izaten du, aurkitzen duen oztopo motaren arabera. Robotak zer egiten duen ikusi ahal izateko, animazioa nahi beste aldiz abiarazi daiteke. Mugimenduak badaude ere, aurkezten diren egoerak estatikoak dira, ikasleak ezin duelako ezer egin robotaren mugimenduak aldatzeko. Testuingurua *soziala eta ez-teknologikoa* da.

I. GALDERA

1. Galdera: GARIKETARAKO ROBOTA CP002Q08

Zer egiten du xurgagailuak bloke gorri batekin topo egitean?

- Beste bloke gorri baterantz mugitzen da berehala.
- Biratu eta gertuen duen bloke horirantz mugitzen da.
- Zirkulu laurden bat (90 gradu) biratu eta aurrera mugitzen da beste zerbaitekin topo egin arte.
- Zirkulu erdi bat (180 gradu) biratu eta aurrera mugitzen da beste zerbaitekin topo egin arte.

?
→

Lehen galderan ikasleek xurgagailuak bloke gorri batekin topo egiten duenean zer egiten duen ulertu behar dute. *Aztertze eta ulertze* galdera da. Ulertu dutela adierazteko, behatutakoaren arabera egoerari dagokion deskribapena lau aukeren artean hautatu behar dute: “Zirkulu laurden bat (90 gradu) biratzen da, eta aurrera joaten da beste oztopo batekin topo egin arte”.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

MAILA: 3
PUNTUAZIOA: 490
PROZESUA: AZTERTU ETA ULERTU
EGOERA: ESTATIKOA
TESTUINGURUA: EZ-TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA

EUSKADI: % 66,3
ELGA : % 63

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

I Kodea: “Zirkulu laurden bat (90 gradu) biratzen da, eta aurrera joaten da beste oztopo batekin topo egin arte”.

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
 Erantzun gabe.

2. GALDERA

2. Galdera: GARBIKETARAKO ROBOTA CP002Q07
 Animazioaren hasieran, xurgagailua ezkerreko hormara begira dago. Animazioaren amaierarako bi bloke hori bultzatu ditu. Animazioaren hasieran xurgagailua ezkerreko hormara begira egon beharrean eskuineko hormara begira egon izan balitz, zenbat bloke hori bultzatuko zituen animazioaren amaierarako?

0 1
 2 3

? →

Bigarren galderan robotak zer egingo duen arrazoibide espazial baten bidez aurreikusi behar da. Zenbat oztopo aurkituko ditu robotak beste leku batetik abiarazten bada? Hau ere *aztertzeko eta ulertzeko* galdera da, erantzun egokia emateko prozesu horiek gauzatu behar direlako. Errazagoa da abiapuntua robotaren ibilbidearen erdiko egoera batekin bat baldin badator. Aukera anitzeko galdera da.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

MAILA: 4
PUNTUAZIOA: 559
PROZESUA: AZTERTU ETA ULERTU
EGOERA: ESTATIKOA
TESTUINGURUA: EZ-TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA

EUSKADI: % 46.3
ELGA : % 47

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

I Kodea: I Bloke hori bat mugitzen du.

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
 Erantzun gabe.

3. GALDERA

3. Galdera: GARBIKETARAKO ROBOTA CF002Q06

Xurgagailuaren portaerak hainbat arau jarraitzen ditu. Animazioan oinarrituta, idatzi xurgagailuak bloke hori batekin topo egiten duenean zer egiten duen deskribatzen duen arau bat.

?
➔

Hirugarren galdera irudikatzeko eta formulatzekoa da, eta robotak bloke hori batekin topo egiten duenean zer egiten duen deskribatzea eskatzen zaio ikasleari. Lehen ez bezala, erantzun irekiko ataza da, eta, beraz, adituek kodifikatu behar dute. Puntuazio osoa emateko robotaren bi jokabide-arauak deskribatu behar dira (adib. “bloke horia ahal duenik urrunenera bultzatzen du, eta gero biratu egiten da”). Jokabide-arau bakar bat aipatzen denean, puntuazio partziala ematen da. Ikasleen ehuneko oso txikiak lortu zuen puntuazio osoa.

GALDERAREN EZAUGARRIAK
MAILA: 6 ERANTZUN OSOA I ERANTZUN PARTZIALA
PUNUAZIOA: 701 ERANTZUN OSOA 414 ERANTZUN PARTZIALA
PROCESUA: IRUDIKATU ETA FORMULATU
EGOERA: ESTATIKOA
TESTUINGURUA: EZ-TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA
EUSKADI: ERANTZUN OSOA: % 9 ERANTZUN PARTZIALA: % 75,3
ELGA : ERANTZUN OSOA : % 15 ERANTZUN PARTZIALA: % 65

GALDERAREN PUNUAZIOA:

Puntuazio osoa

2 Kodea: Xurgagailuak bloke horia orma edo bloke gorri batekin topo egin arte bultzatzen duela adierazi du. Eta gero 180 graduko bira egiten duela.

- Blokea beste zerbaitekin topo egin arte bultzatzen du; gero, atzera biratzen da [Puntuazio osoa emateko ez da zehaztu behar topo zerekin egiten duen “Atzera biratzen da” esateak 180 graduko bira inplikatzeko du.]
- Blokea ahalik urrunenera bultzatzen du; gero, atzera biratzen da (180 gradu). [“Ahalik urrunenera” esateak zerbaitekin topo egin arte esan nahi du]
- Aurrera mugitzen da zerbaitekin topo egin arte; orduan, zeharo biratzen da eta beste aldera joaten da berriro [“Zeharo biratzen da” esateak 180 graduko bira inplikatzeko du]
- Bloke horia gehiago mugitu ezin denean zirkulu erdia biratzen da.
- Gehiago mugitu ezin duen arte bultzatzen du, eta kontrako norabidean mugitzen da. [“Kontrako norabidea” esateak 180 graduko bira inplikatzeko du.]

Puntuazio partziala

I Kodea: Xurgagailuak bloke horia bultzatzen duela EDO biratu egiten dela adierazi du.

- Bloke hori bat aurkitzen duenean, bultzatu egiten du.
- Blokea bultzatzen du. [gutxienezkoa]
- Blokea mugitzen du.
- Biratu egiten da. [gutxienezkoa]
- 180 gradu biratzen da.

- Blokea bultzatzen du; gero, 180 gradu biratzen da.[2 kodea emateko, erantzunean robotak bloke horia orma edo bloke gorri batekin topo egin arte bultzatzen duela zehaztu behar du.]
- Robotak bloke horia bultzatzen du zerbaitekin topo egin arte; gero, biratu egiten da[2 kodea emateko, erantzunean robotak 180 gradu biratzen dela zehaztu behar du.]
- Robotak bloke horia orma edo bloke gorri batekin topo egin arte bultzatzen du.[Ez da birarik aipatzen.]

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak:

- Ezin ditu bloke horiak mugitu.
- Zirkulu laurden bat biratzen da[Zenbatekoa zehaztekoan, egiazkoa adierazi beharko luke.]
- Blokea ormarik hurbileneraino bultzatzen du.[Noraino bultzatzen duen zehazten badu, erantzun zuzena eman beharko luke.]

Erantzun gabe.

ÍTEM III: TXARTELAK

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=cbaltemPreview&unitVersionId=565>

TXARTELAK unitatean ikasleek egoera bat imajinatu behar dute: tren-geltoki batera heldu dira eta geltokian txartelak erosteko makinak daude. Testuingurua *soziala eta teknologikoa* da.

Makinetan metroko txartelak edo eskualdeko trenerako txartelak eros ditzakete, tarifa arruntarekin edo murriztuarekin; egun baterako txartelak edo bidaia kopuru jakin baterako txartelak aukeratu ditzakete.

Unitateko galdera guztiek problema interaktibo bat planteatzen dute: makina ezezagun bati aurre egin behar diote eta behar duten helbururako erabili behar dute makina.

TXARTELAK

Tren geltoki batean txartelak saltzeko makina automatiko bat jarri dute. Eskuineko ukipen-pantaila erabili behar da txartelak erosteko. Hiru aukera egin behar dituzu.

- o Aukeratu zein tren-sare nahi duzun (metroa edo eskualde-trena).
- o Aukeratu tarifa mota (arrunta edo murriztua).
- o Aukeratu egun baterako txartel bat edo bidaia kopuru jakin bat egiteko txartela. Egun baterako txartelarekin, erositako egunean nahi adina bidaia egin daitezke. Bidaia kopuru jakin bat egiteko txartela erosiz gero, egun ezberdinetan erabil dezakezu.

EROSI botoia azalduko zaizu hiru aukeraketak egindakoan. UTZI botoia ere badago eta nahi denean erabil daiteke, EROSI botoia sakatu BAINO LEHEN.

I. GALDERA

1. Galdera: TXARTELAK CP039Q02

Erosi tarifa arrunteko eskualdeko trenerako txartel bat, bi bidaia indibidual egiteko. EROSI sakatu ondoren, ezin zara galderara itzuli.



Lehenengo galderan eskualdeko trenetan bi bidaia indibidual egiteko tarifa arrunteko txartel bat erosi behar dute. Hemen *planifikatzeko eta gauzatzeko* prozesu kognitiboa neurtzen da. Hasteko, tren-sarea hautatu behar dute (“eskualdeko trenak”); gero, tarifa (“tarifa arrunta”); egun baterako txartelak edo bidaia indibidual batzuetarako txartelak; bukatzeko, bidaia kopurua (bi) hautatu behar dute. Ebazpenak pausu batzuk ematea eskatzen du, eta jarraibideak ez dira ematen hautaketak egin behar diren hurrenkeran.

Problema, hurrengoekin konparaturik, nahikoa lineala da, baina makinari aurre egin behar dioten lehenengo aldia denez, zailtasuna areagotu egiten da.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

MAILA: 3
PUNUAZIOA: 526
PROCESUA: PLANIFIKATU ETA GAUZATU
EGOERA: INTERAKTIBOA
TESTUINGURUA: TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA

EUSKADI: % 53,7
ELGA : % 59,2

GALDERAREN PUNUAZIOA:

Puntuazio osoa

1 Kodea: Tarifa arrunteko txartela erosi du, eskualdeko trenetan bi bidaia individual egitekoa.

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
 Erantzun gabe.

2. GALDERA

2. Galdera: TXARTELAK CP038Q01
 Gaur hirian metroz lau bidaia egiteko asmoa duzu. Ikaslea zara, beraz, tarifa murriztua erabil dezakezu.
 Erabili txartel-makina txartelik merkeena aurkitzeko eta sakatu EROSI.
 EROSI sakatuz gero, ezin zara galderara itzuli.

Bigarren galderan, metroan egun berean lau bidaia egiteko txartelik merkeena aurkitu eta erosi behar dute. Ikasleak direnez, tarifa murriztuan eros dezakete. Esploratzeko eta ulertzeko galdera da. Esplorazio-estrategia bat erabili behar dute: lehenengo eta behin, aukerarik nabarrienak ezagutu behar dituzte (tarifa murriztuko eguneko txartela edo lau bidaiatarako txartel individuala); gero, bietako merkeena zein den egiaztatu behar dute. Puntuazio osoa emateko bi pantailetara joan behar dute eta txartelik merkeena erosi. Prezioak konparatzen ez badituzte, puntuazio partziala emango zaie. Beraz, pausu batzuk eman behar dira.

GALDERAREN EZAUGARRIAK

MAILA: 5 ERANTZUN OSOA
 2 ERANTZUN PARTZIALA
PUNUAZIOA: 638 ERANTZUN OSOA
 453 ERANTZUN PARTZIALA
PROCESUA: AZTERTU ETA ULERTU
EGOERA: INTERAKTIKOA
TESTUINGURUA: TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA

EUSKADI: ERANTZUN OSOA: % 26,3
 ERANTZUN PARTZIALA: % 49,1
ELGA : ERANTZUN OSOA: % 28,7
 ERANTZUN PARTZIALA: % 46,9

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

2 Kodea: “Metroa/Murriztua/Txartel indibiduala(k)”lau bidaiatarako erosi du, eta prezioak konparatzeko “Metroa/Murriztua/Eguneko txartelaren” kasuan EROSI pantaila bisitatu du.

Puntuazio partziala

1 Kodea: “Metroa/Murriztua/Eguneko txartela” edo “Metroa/Murriztua/Txartel indibiduala(k)” lau bidaiatarako erosi du, baina ez ditu bi pantailak bisitatu prezioak konparatzeko.

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
Erantzun gabe.

3. GALDERA

3. Galdera: TXARTELAK CP038Q03

Hiriko metrorako txartel bat erosi nahi duzu, bi bidaiari indibidual egiteko. Ikaslea zara, beraz, tarifa murriztua erabili dezakezu. Erabili txartel-makina eta erosi eskura dagoen txartel egokiena.

?
→

Hirugarren galderan metroko bi txartel indibidual erosi behar dituzte. Tarifa murriztukoak erosi ditzaketela esaten zaie. Galdera *gainbegiratzeko eta gogoeta egitekoa* da, hasierako plana aldatu egin behar dutelako. Tarifa murriztua aukeratzen dutenean, makinak “ez dago mota horretako txartelik eskuragarri” esaten du. Ataza honetan ikasleak konturatzen dirabaldintza guztiak ezin direla bete, eta plana aldatu egiten dute txartel arrunta erosiz.

GALDERAREN EZAUGARRIAK
MAILA: 4 PUNTUAZIOA: 579 PROZESUA: GAINBEGIRATU ETA GOGOETA EGIN EGOERA: INTERAKTIBOA TESTUINGURUA: TEKNOLOGIKO SOZIALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUENKOA
EUSKADI: % 50,6 ELGA : % 45,8

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

1 Kodea: Metrorako tarifa murriztuko txartel indibiduala, bi bidaiatarako, lortzen saiatu da. Hurrengo txartel hauetako EDOZEIN lortu du:

- Metroa/Tarifa arrunta/ Indibiduala, bidaiari baterako.
- Metroa/Tarifa arrunta/ Indibiduala, bi bidaiatarako.

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
Erantzun gabe.

ÍTEM IV: AIRE KLIMATIZAGAILUA

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=cbaltemPreview&unitVersionId=564>

AIRE KLIMATIZAGAILUA

Ez daukazu aire-klimatizagailu berriaren jarraibiderik. Nola funtzionatzen duen asmatu behar duzu.

Ezkerrean dauden goiko, erdiko eta beheko aginteak alda ditzakezu, graduatzaileak (→) erabilita. Aginte bakoitzaren hasierako posizioa honela dago adierazita: ▲

APLIKATUren gainean klik eginda, gelako tenperaturaren eta hezetasunaren aldaketak ikusi ahal izango dituzu tenperaturaren eta hezetasunaren grafikoetan. Grafiko bakoitzaren ezkerrean dagoen laukiak erakusten du uneko tenperatura eta hezetasun maila.

Goiko agintea

Temperatura

25

Erdiko agintea

Hezetasuna

25

Beheko agintea

APLIKATU

BERREZARRI

I. GALDERA

1. Galdera: AIRE KLIMATIZAGAILUA CP025001

Aztertu ea aginte bakoitzak tenperaturari eta hezetasunari eragiten ote dien graduatzaileak aldatuta. Berrito hasteko, egin klik BERREZARRI aukeran.

Marraztu lerroak eskuineko diagraman, aginte bakoitzak zeri eragiten dion adierazteko.

Lerroak marrazteko, egin klik aginte baten gainean eta, ondoren, egin klik Temperatura edo Hezetasuna aukeran. Lerroak ezabatzeke, egin klik gainean.

Goiko agintea

Temperatura

Erdiko agintea

Hezetasuna

Beheko agintea

?

→

Unitateko lehen galderan, ikasleek graduatzaileak erabili behar dituzte aginte bakoitzak tenperaturari edo hezetasun mailari nola eragiten dien aurkitzeko. Galdera honetako prozesua *irudikatzea eta formulatzea* da: ikasleak probak egin behar ditu tenperaturari eta hezetasun mailari zein agintek eragiten dien jakiteko. Gero, kausazko harremanak irudikatu behar ditu hiru aginteak eta bi faktoreak (tenperatura eta hezetasuna) gezien bidez lotuz. Ikasleak esplorazioan nahi beste nabigazio-pausu eman ditzake; pausu kopuruan ez dago mugarik. Puntuazio osoa emateko kausazko diagrama egoki bete behar dute. Bi aldagaien arteko erlazioak egoki esploratzen baditu, baina ez baditu diagrama batean egoki irudikatzen, puntuazio partziala emango zaio.


GALDERAREN EZAUGARRIAK
MAILA: 3
PUNTOAZIOA: 523 ERANTZUN OSOA 492 ERANTZUN PARTZIALA
PROZESUA: IRUDIKATU ETA FORMULATU
EGOERA: INTERAKTIBOA
TESTUINGURUA: TEKNOLOGIKO PERTSONALA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA
EUSKADI: ERANTZUN OSOA: % 14,7 ERANTZUN PARTZIALA: % 56
ELGA : ERANTZUN OSOA: % 12,7 ERANTZUN PARTZIALA: % 55,4

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

2 Kodea: Construye el modelo correcto. Abajo se muestra el modelo correcto.



Puntuazio partziala

1 Kodea: Eredua ez da zuzena ETA galderaren log-fitxategian jasota dago ikasleak une batean VOTAT estrategia (gauza bakar bat aldatu aldi bakoitzean, beste aldagai guztiak aldatu gabe) erabili duela hiru sarrera-aldagaietako birekin gutxienez (agintea)

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
Erantzun gabe.

2. GALDERA

AIRE KLIMATIZAGAILUA

Ez daukazu aire-klimatizagailu berriaren jarraibiderik. Nola funtzionatzen duen asmatu behar duzu.

Ezkerrean dauden goiko, erdiko eta beheko agintea alda ditzakezu, graduatzaileak (->) erabilita. Aginte bakoitzaren hasierako posizioa honela dago adierazita: ▲.

APLIKATUren gainean klik eginda, gelako tenperaturaren eta hezetasunaren aldaketak ikusi ahal izango dituzu tenperaturaren eta hezetasunaren grafikoetan. Grafiko bakoitzaren ezkerrean dagoen laukiak erakusten du uneko tenperatura eta hezetasun maila.

2. Galdera: AIRE KLIMATIZAGAILUA CP025Q02

Eskuinean dago adierazita hiru aginteek, tenperaturaren eta hezetasunaren arteko erlazio zuzena.

Erabili agintea tenperatura eta hezetasuna nahi diren mailan jartzeko. **Gehienez lau urratsetan egin behar duzu.** Lortu nahi diren mailak tenperaturaren eta hezetasunaren grafikoetan daude, banda gorrien bidez adierazita. Lortu nahi den maila bakoitzaren balioen tarte 18-20 da eta banda gorri bakoitzaren ezkerrean dago adierazita. **APLIKATU** aukeran lau aldiz bakarrik egin dezakezu klik eta ez dago **BERREZARRI** botoirik.

Bigarren galderan ikasleek euren ezagupenak erabili behar dituzte aire girotuaren funtzionamendua nola erregulatzen den ulertzeko. *Planifikatzeko eta gauzatzeko* galdera da. Proba itxia dela kontuan izanik eta orain arte emandako nabigazio-pausuetatik aparte pausu gehiagorik ez dela eman behar bermatzeko, diagrama bat erakusten da aginteen eta faktoreen arteko erlazioekin. Lau pausu bakarrik onartzen direnez, lana egiteko estrategia bat planifikatu eta gauzatu behar dute. Hala ere, temperatura eta hezetasun maila egokiak modu ezberdinean lor daitezke lau pausu posible horien barruan –bi pausurekin ere lor daitezke–, eta akatsak beti berehala zuzendu daitezke. Adibidez, estrategia bat azpi-helburuak bereziturik finkatzea eta arreta pausuz pausu faktore bakoitzean jartzea izan liteke. Ikasleak pausu horiek faktore bakar baterako ematen baditu, puntuazio partziala emango zaio.

GALDERAREN EZAUGARRIAK	ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA
MAILA: 5 ETA 4 PUNTUAZIOA: 672 ERANTZUN OSOA 592 ERANTZUN PARTZIALA PROZESUA: PLANIFIKATU ETA GAUZATU EGOERA: INTERAKTIBOA TESTUINGURUA: TEKNOLOGIKO PERTSONALA	EUSKADI: ERANTZUN OSOA: % 21,2 ERANTZUN PARTZIALA: % 22,3 ELGA : ERANTZUN OSOA: % 20,8 ERANTZUN PARTZIALA: % 24,3

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

2 Kodea: Galderaren log-fitxategian jasota dago helburutzat genituen banda gorrietara heldu dela bi irteera-aldagaien kasuan (tenperatura eta hezetasuna)

Puntuazio partziala

1 Kodea: Galderaren log-fitxategian jasota dago helburutzat genituen banda gorrietarako distantzia hasierakoa baino txikiagoa dela bi irteera-aldagaien kasuan (tenperatura eta hezetasuna).

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.
Erantzun gabe.

Problemen ebazpeneko errendimendu-mailen deskribapena

<p>1 maila (358 eta 423 puntu artean)</p>	<p>Maila honetako ikasleak oso modu mugatuak aztertzen du problema, eta aurretiaz antzeko egoera bati aurre egin behar izan dionean bakarrik. Ezagunak zaizkion alderdietan oinarriturik, gai da eguneroko objektu simple baten funtzionamendua partzialki deskribatzeko. Oro har, ebazpenerako urrats bat edo bi bakarrik eskatzen duten problema errazak ebazteko gai da. Normalean ez du ataza planifikatzen, eta ez du azpi-helbururik finkatzen.</p>
<p>2 maila (423 eta 488 puntu artean)</p>	<p>Maila honetako ikasleak printzipioz ezagunak ez zaizkion egoerak azter ditzake, eta baita horien parte txiki bat ulertu ere. Saiatzen den arren, gailu digital batzuk bakarrik (adib. makina automatikoak, etxetresna elektrikoak) partzialki ulertzea eta kontrolatzea lortzen du. Hipotesi simple bat egiaztatzeko gai da, eta baita muga bakarra edo berariazkoa duen problema bat ebazteko ere. Gai da planifikatzeko eta aldi berean azpi-helburu baterantz aurreratzeko. Ebazpeneranzko aurrerapena gainbegiratzeko nolabaiteko gaitasuna du.</p>
<p>3 maila (488 eta 553 puntu artean)</p>	<p>Maila honetako ikasleak zenbait formatutan aurkeztutako informazioa erabiltzen du. Problema aztertzeke eta bere osagaien arteko erlazio simple bat ondorioztatzeke gai da. Gailu digital sinpleak erabil ditzake, baina gailu konplexuagoekin arazoak izaten ditu. Baldintza bakarreko problemei segurtasunez aurre egiten die; adibidez, ebazpenerako aukera batzuk sortu eta haien arteko egokiena zein den egiaztatu. Baldintza anitzak edo elkarri lotutako alderdiak daudenean, gai da aldagai bat konstante mantentzeko gainerako aldagaietan nolako eragina duen ikusteko. Hasierako hipotesia egiaztatzen ala ezeztatzen den aurreikusteko eta egiaztatzeko gai da. Planifikatu beharraren eta aurrerapena gainbegiratzeko beharraren garrantzia ulertzen du, eta gai da hala behar denean beste aukera batzuekin saiatzeko.</p>
<p>4 maila (553 eta 618 puntu artean)</p>	<p>Maila honetan nolabaiteko zailtasuna duten problemak norabide jakin batean azter ditzake. Problema ebazteko behar diren osagaien arteko loturak antzematen ditu. Gailu digital konplexuak beti modu eraginkorrean erabiltzeko gai da (adib. aurretiaz ezagutzen ez zituen makina automatikoak edo etxetresna elektrikoak). Aurretiazko urrats batzuk planifikatzeko eta egindako aurrerapenak gainbegiratzeko gai da. Gehienetan planak moldatu edo helburuak birformulatu ditzake jasotako feedbackaren arabera. Aukera ezberdinak sistematikoki probatzen ditu, eta problemaren baldintza guztiak bete ote diren egiaztatzen du. Sistema batek zergatik huts egiten duen antzeman dezake, eta nola probatu daitekeen deskribatu.</p>
<p>5 maila (618 eta 683 puntu artean)</p>	<p>Maila honetan problema konplexuak sistematikoki azter ditzake eta informazio garrantzitsua nola egituratzen den uler dezake. Nolabaiteko zailtasuna duten gailu berriei aurre egiten dienean (adib. makina automatikoak eta etxetresna elektrikoak), gailua kontrolatzeko feedbackari berehala erantzuten dio. Ebazpena lortzeko, maila honetako ikasleak egon daitezkeen muga guztiak gainditzeko estrategiarik onena bilatzea aurreikusten du. Ezusteko oztopoak antzeman bezain pronto, edo planifikatutako ibilbidetik desbideratzen duen akats bat egiten duenean, planak moldatu edo alde batera utz ditzake.</p>
<p>6 maila (683 puntu edo gehiago)</p>	<p>Maila honetan askotariko problemei buruzko eredu mental osoak eta koherenteak garatzeko gai da, egoera konplexuak aise ebazteko aukera ematen diotenak. Egoera aztertzeke eta problemaren inguruko informazio guztia ulertzeke estrategia finak erabiltzen ditu. Informazioa askotariko formatuetan aurkez daiteke, eta horrek osagaiak interpretatzea eta integratzea eskatzen du. Gailu konplexuei aurre egin behar dienean (adib. ezohiko funtzionamendua duten etxetresna elektrikoak), arin ikasten du gailuen kontrola, eta helburua egoki lortzen du. Sistema bati buruzko hipotesi orokor bat formulatu dezake, eta oso-osorik egiaztatu. Hipotesia bukaera logikoraino jarraitzen du, eta helburua lortzeko dagoen informazioa nahikoa ote den antzematen du. Ebazpena lortzeko, urrats anitzeko plan konplexu eta malguak finkatzeko gai da, eta urratsen garapena gainbegiratzeko. Hala behar denean, bere estrategiak moldatzen ditu, baldintza guztiak, esplizituak edo implizituak, kontuan izanik.</p>

MATEMATIKAKO ITEMAK FORMATU DIGITALEAN

Jarraian PISA 2012 ebaluazioan erabili ziren formatu digitaleko matematikako 3 unitate aurkezten dira adibide gisa.

Unitate bakoitzean estimulu-pantailaren irudia, galderaren helburuaren deskribapen laburra eta zuzentzeko irizpideak azaltzen dira. Itemak ebaluazioaren hiru aspektu nagusien arabera sailkatzen dira: prozesuak, edukiak eta testuingurua. Liberatutako matematikako unitateak 7 dira guztira, baina hemen honako hauek aurkezten dira.

- CD EKOIZPENA
- IZAR PUNTUAK
- GORPUTZ MASA INDIZEA

Matematikarako konpetentziako euskarazko item digitaletara sartzeko, web gunean sartu eta *Mathematics* gainean klik egin. Laukizuzen urdineko problemen artean aukera ezazu ebatzi nahi duzuna.

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=toMaths>

The screenshot shows a web browser window with the URL <http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=toMaths>. The page title is "PISA: examples of computer-based items". A navigation bar includes "Digital Reading 2009", "Digital Reading 2012", "Mathematics" (circled in blue), and "Problem-Solving". The main content area is titled "Computer-based Mathematics Units" and contains a table of units. Below the table, there are instructions: "Click on the magnifying glass icon to view the unit." and "Click on the document icon to download the unit information".

Locale	CM010 Graphs	CM012 Fencing	CM013 Car cost calculator	CM015 CD production	CM020 Star points	CM030 Photos	CM038 Body mass index
Republic of Korea	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍
Singapore English	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍
Slovenia Slovenian	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍
Spain Basque	N/A	N/A	N/A	🔍	🔍	N/A	🔍
Sweden English	N/A	N/A	N/A	🔍	🔍	N/A	🔍
United Arab Emirates Arabic	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍
United Arab Emirates English	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍
United States English	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍	🔍

Zenbait galderetan ezaugarrien aspektu batzuk ez dira jaso, proba pilotuan bakarrik erabili zirelako, baina ez errendimendu proban.

Itemetako galdera bakoitzari emandako erantzun zuzenen ehunekoa –Euskadikoa eta ELGAKoa– ELGAren datu-basean oinarriturik kalkulatu dira, 2014ko martxoaren 31ko datuekin.

Erantzun zuzenen ehunekoak berdin kalkulatu dira bi kasuetan, eta, beraz, galdera batzuetan ELGAko datuak eta beste argitalpen batzuetakoak ez dira berdin-berdinak. Hala ere, onargarriak dira Euskadiko datuekin konparazioak egiteko

ÍTEM I: CD EKOIZPENA

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=cbaltemPreview&unitVersionId=335>

eu-ES Programme for International Student Assessment 2012

CD EKOIZPENA

Zedtec-ek CDak kopiatzeko zerbitzu bat eskaintzen du. Bi metodo daude CDen kopiak egiteko: bikoizketa eta erreplikazioa.

Grafikoek eta prezio-kalkulagailuak bi metodoak erabilia hainbat CD kopuru kopiatzeko prezioak azaltzen dituzte. Balio ezberdinak jar ditzakezu "Kopia kopurua" gelaxkan, bikoizketaren eta erreplikazioaren kostu zehatza jakiteko.

PREZIO KALKULAGAILUA		
Kopia kopurua	Erreplikazioaren prezioa	Bikoizketaren prezioa
100	420,00 zed	360,00 zed

1. Galdera: CD EKOIZPENA CM015Q01

Prezioari dagokionez, zer alde dago 500 CD bikoiztearen eta erreplikatearen artean?

60 zed
 110 zed
 140 zed
 940 zed

I. GALDERA

Grafiko batean bi balioen arteko aldea aurkitu behar dute bi zuzenak aztertuz edota kalkulu-taula bat erabiliz.

GALDERAREN EZAUGARRIAK¹

PROZESUA: ERABILI

EDUKIA: KANTITATEA

TESTUINGURUA: LANEKOA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA

EUSKADI: % 55,4

ELGA : % 60,2

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

I Kodea: 140 zeds

¹ Galderetan ezaugarrien aspektu batzuk ez dira jaso, proba pilotuan bakarrik erabili zirelako

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.

Erantzun gabe.

2. GALDERA

Ekuazio bat formulatu behar dute taula batean edota grafiko batean emandako datuak erabiliz.

2. Galdera: CD EKOIZPENA CM015Q02

Erabili grafikoak eta prezio-kalkulagailua **erreplikazioaren** prezioa zehazten duen ekuazioa aurkitzeko.

Idatzi beheko ekuazioan falta diren bi balioak, prezioak, P -k, eta egindako kopia kopuruak, n -k, nolako harremana duten erakusteko, erreplikazioari dagokionez.

$P =$ $n +$

?
 →

GALDERAREN EZAUGARRIAK

PROZESUA: FORMULATU

EDUKIA: ALDAKETA ETA HARREMANAK

TESTUINGURUA: LANEKOA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA

EUSKADI: ERANTZUN OSOA: % 7
ERANTZUN PARTZIALA: % 5,3

ELGA: ERANTZUN OSOA: % 11,5
ERANTZUN PARTZIALA: % 5,4

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

2 Kodea: Bi balioak, 1,3 eta 290, egoki identifikaturik daude eta behar den lekuan kokaturik.

- $P = 1,3n + 290$

Puntuazio partziala

1 Kodea: Balio bakar bat dago egoki kokaturik

- $P = \dots n + 290$

Formula zuzena bikoizketarako

- $P = 1,8 + 180$

Formulako balioak grafikoan oinarrituta bakarrik kalkulatu dira, eta horrek zehaztasun falta sortzen du (n koefizienterako 1,2-1,5 tarteko balioak onartzea eta ebakipunturako 280-300 tarteko balioak)

- $P = 1,5n + 300$

Formulako bi balioak identifikaturik daude, baina gaizki kokaturik

- $P = 290n + 1,3$

N koefizientearen balio bakar bat identifikatu da eta egoki kokaturik dago.

- $P = 1,3n +$

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunak.

Erantzun gabe.

3. GALDERA

Galderaren helburua bi ekuazio linealen ebakipuntua grafiko edota balio-taula bat erabiliz eta emaitza testuinguruan interpretatuz identifikatzea da.

3. Galdera: CD EKOIZPENA CM015Q03

Zedtec-ek ondorengo baieztapena egiten du bere iragarkian: *Bikoizketa merkeagoa da kopia kopurua bakia bada (500 CD gehienez).*

Azaldu zergatik den iragarkiko kopuru hori, 500 CD, okerra.

Baieztapen hori zuzena izateko, zein da gehienezko kopia kopurua?

Kopia kopurua =

GALDERAREN EZAUGARRIAK
PROZESUA: INTERPRETATU
EDUKIA: ALDAKETA ETA HARREMANAK
TESTUINGURUA: LANEKOA

ERANTZUN ZUZENEN EHUNEKOA
EUSKADI: ERANTZUN OSOA: % 20,5
ERANTZUN PARTZIALA: % 32,6
ELGA : ERANTZUN OSOA: % 21,3
ERANTZUN PARTZIALA: % 29,5

GALDERAREN PUNTUAZIOA:

Puntuazio osoa

2 Kodea: Bi parteak zuzen: (a) Azalpenerako, ikasleak argitu behar du kopiatu beharreko CD kopurua eskatutako 500 baino txikiagoa denean erreplikazioa bikoizketa baino merkeagoa dela. Bi zuzenen arteko ebakipuntuari buruzko baieztapen orokorra egin dezake edo grafiko/taulan 219tik 500era bitarteko balio zehatz bat aipa dezake; (b) kopia kopururako ikasleak 219 edo 220 erantzun behar du.

- (a) 500 CD ez da erantzun zuzena, grafikoak ez baitira ebakitzen 500 puntuan: ebakipuntua askoz baxuagoa ; (b) 220.
- (a) baieztapena ez da zuzena, 300 CDtarako, bikoizketa erreplikazioa baino 40 zed garestiagoa baita; (b) 219.
- (a) 220 CDtatik gora bikoizketa erreplikazioa baino garestiagoa baita; (b) 220.

Puntuazio partziala

1 Kodea: (a) parteak: azalpena zuzena da; (b) parteak: kopia kopurua ez da zuzena edo ez du erantzunik eman.

- Baieztapena ez da zuzena; 300 CD bikoizteak 720 zed balio du eta erreplikatzeko, 680 zed bakarrik; 300 CD, jakina, 500 baino gutxiago dira.

Kopia kopurua = [(b) parteak erantzun gabe]

(a) parteak: azalpena ez da zuzena edo ez du erantzunik eman; (b) parteak: kopia kopurua zuzena da (219 edo 220).

- Kopia kopurua = 220 [(a) parteak erantzunik eman].

Puntuazio gabe

0 Kodea: Beste erantzunik.

Erantzun gabe.

ITEM II: IZAR PUNTUAK

<http://erasq.acer.edu.au/index.php?cmd=cbaltemPreview&unitVersionId=336>

IZAR-PUNTUAK

Edozein iruditan, puntu bati, S, izar-puntua esaten zaio, baldin eta irudi barruko beste edozein punturekin, P, elkartzean, SP lerroa irudiaren barruan geratzen bada.

Horrela erabiltzen dira PUNTUA (S) eta LERROA (SP) botoiak.

- Puntu bakarra sortzeko, egin klik PUNTUA (S) botoian eta gero egin klik irudi batean.
- Lerro bat sortzeko, egin klik LERROA (SP) botoian eta gero egin klik irudi batean S eta P puntuen artean.
- Puntu bat edo lerro bat aldatzeko, egin klik puntuaren edo lerroaren gainean eta arrastatu.
- Puntu edo lerro bat ezabatzeko, egin klik puntuaren edo lerroaren gainean.

1. irudia
S izar-puntu bat da

2. irudia
S ez da izar-puntu bat

3. irudia

PUNTUA (S)

4. irudia

LERROA (SP)

BERREZARRI

